



TXERRI BODA

Matxinbentako Zuaneta auzoko
Txikertarrenean txerria hil dute.
Baserrietan galtzen ari den usadioa da 20

DAEE

- Arropak 46 tailatik aurrera
- Osagarriak: pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka ezagunenekin egiten dugu lan (Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)

Animatu eta zatoz gure denda berria ezagutzera!

**Aurkezpena,
martxoaren 6an
18:00etan**

Olazko Amaren Plazatxoa, 5 • Tel.: 943 81 40 49
dacc@hotmail.es • AZPEITIA



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behe,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 115.a (2010eko martxoa)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730 792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak (erakunde
publikoak)



Uztarriak
Bai Euskarari



Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik

2010EKO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Zer iruditzen
zaizu atez ateko zabor
bilketa? **13**

mamia

Angel Gurrutxaga.

Euskadiko
Automobilismo
Federazioko
presidentearekin
solasean **04**
Gazte lokalak. Gerozt
eta koadrila gehiagok
alokatzen dituzte **20**
Nekazaritza
ekologikoa. Kontsumo
taldeen dinamika **24**

jakiteko

Bestaldetik. Julian
Eizmendi, "aurrekoa
eta ondorengoa" ondo
bereiztuta **34**




Ba al dakizu hil honen 31n Galarreta
ixten bada herriko zazpi erremontista
kalean geratuko direla? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrian

943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldea orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberría, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

ANGEL GURRUTXAGA

Euskadiko Automobilismo Federazioaren presidentea

“ALdaketa erabatekoa ematea nahi duqu”

Iaz hartu zuen kargua, bere lan-taldearekin batera. Automobilismoaren oinarria landu eta gazteei aurrera begirako aukerak ematea ditu helburu. 📧 Mailo Oiarzabal

Azpeitian bizi, lantokia Azkoitian, eta Euskadiko Automobilismo Federazioaren egoitza “oraindik” Bilbon. Batetik bestera dabil Angel Gurrutxaga azken hilabeteetan, mugikorra sutan boladatan. Gehien maite duen kirolaren “beste bandoan” urte asko egin ditu eta orain ardurar berria hartzea tokatu zaio.

Nola iristen da bat automobilismo federazioaren zuzendaritzara?

Urte askotatik mundu honetan sartuta egon naiz. Txiki-txikitatik gustatu izan zaizkit kotxeak. Hasi nintzen, lehenengo, Marruak Eskudarian laguntzen. Iñaki Alberdi laguna dut eta bere taldean ere dezente denbora ibili naiz eta, gero, kolaborazioak egiten

Lagun-Artearekin, RAC-arekin... Orain dela urte batzuk atera nituen federazioko lizentziak: karre-rako zuzendari, kirol komisario eta proba-idazkari. Kirol komisario lanetan ibili izan naiz gehienbat.

Eta presidente izateko aukera, nolatan etorri zitzaizun?

Ikusten genuen Euskal Herriko automobilismoa ematen ari zen bidea ez zela oso gure gustukoa. Orain dela urte batzuk tentatu ninduten, baina ez nintzen animatu eta ez genuen hautagaitzarik aurkeztu. Baina iaz, ja gehiago landu genuen, talde on bat sortu eta gehiago animatu nintzen, aurkeztera. Ez nuen pentsatzen horrelakoa izango zenik, non ari nintzen sartzen. Talde lana izan da,

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1964ko azaroaren 5ean.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Azkoitiko Caldererá Zaher enpresan egiten du lan, mekanizatu saileko arduradun.

talde horrek bultzatu nau, aurkeztu ginen eta nahikoa aldearekin irabazi genuen; ikusten zen jendeak nahi zuela aldaketa bat. Txarrena izan da kirol mailan, lehen urte honetan, ezin izan dugula gauza handirik egin. Trantsizio urtea izan da, pixkat: dokumentazioa nola dagoen begiratu, gauzak gure erara moldatu...

Lan asko ematen al du presidentziak?

Orain, momentuan, asko. Aldaketa erabatekoa ematea nahi diogu eta hori zaila izaten da, ohiturak

hartuta egoten dira eta; antolaketatik aldetik nik uste dut ja dezente aurreratuta daukagula, eta orain nahi duguna da aldaketa hori kirol arloan ere ematea. Hau kirol oso berezia eta konplikatua da. Irudi txar bat daukagu, egiazkoa ez dena. Zailtasun handia dauka, gauza asko koordinatu behar direlako proba bat egiteko: trafikotik aldetik, segurtasuna, jende pila bat elkartzen du, arrisku maila bat ere badaukan kirola da, hori kon-tuan eduki behar da... Aldagai asko nola dauden, oso-oso berezia da kirol hau. Eta horrek lan asko ematen du.

Zeuren ibili izan al zara, gidari edo kopilotu, lehian?

Ez, ez naiz inoiz ibili. Gustura ibili-ko nintzateke, baina kirol garestia



Angel Gurrutxaga Montmeloko zirkuituan, 1 Formulako entrenamenduak jarraitzen, joan den otsailaren 25ean. ||| Euskadiko Automobilismo Federazioa

da eta ez naiz sartu horretan. Gainera, adin bat izan behar duzu, eta adin horretan aukera suertatzea... eta zaila da. Dena dela, beti asko gustatu izan zaidanez, 'beste bandoan' ibili izan naiz.

Hemen dagoen afizioa eza-gututa, inor ez da harrituko presidentea Azpeitikoak izanda...

Bai, bai, egia da. Harrigarria da hemen egiten diren probetan zenbat jende elkartzan den. Azpeitiko probak gainera mitikoak dira: Urrakikoa, lehen egiten ziren rallyak... Batzuk galdu egin ditugu, hainbat arrazoiengatik: jendearengatik, jendearen astakeriengatik, jendeak ez duelako ulertzen kirol hau eta, gero, ekonomikoki oso zaila delako. Nik uste dut, mugitzen dugun jendearen proportzioan, laguntza gutxiegi jasotzen dugula. Baina bueno, ahal dena egin eta aurrekontua ahal dugun bezala osatzen ibil-

tzen gara. Problematika handiena diruarena da, azpiegitura handia behar da.

Krisiak eragin al dizue?

laz probaren bat erori zen. Urte hasieran lasterketen egutegia egiten dugu, eta aurten ere erori da pareren bat. Aurreko astean [otsaileko hirugarrena] izan genuen denboraldiko lehen proba eta 60 gidarik eman zuten izena, oso inskripzio ona da hori. Eta jende aldetik ere, ikusle asko ibili da. Bailara honetan, eta Azpeitian, gidari oso onak eduki ditugu, tradizioa badago; gidari pila bat dago, eta gazte jendea ere asko. Afizio handia dago.

Azpeitian kotxeari kulto

“Hau kirol berezia da. Irudi txar bat dauka, egiazkoa ez dena”

handia dagoela esaten da. Horrela dela uste al duzu?

Kulto handia dago. Bai, hemen egundoko afizioa dago. Ikusten da, zer-nolako kotxeak dauden, eta zer mugimendu egoten den lasterketak antolatzen ditugunean. Egin behar dena, ordea, afizio hori bideratzea da, beste kultura bat sustatu, heziketa bat... Adibidez, Kanariar irletan, garai batean Txapeldunen Lasterketa egiten zuten eta joaten ginen gu hara Iñakirekin [Alberdi]. Eta ikustekoa da han dagoen automobilismoaren kultura; helduak ere joan egiten dira ikustera, eta ordu pila bat egoten dira han... Nik uste dut heziketa kontu bat dela.

“Bailara honetan gidari pila bat dago, eta gazte jendea ere asko”

Kontua bere onetik ateratzen dela, agian?

Bai. Niri iruditzen zait oso zaila dela horrelako gauza bat prestatzea, eta jendearen aldetik laguntza pixka bat gehiago eduki behar dela. Jendeak errespetatu egin behar du han lanean ari den jendea; bihurgune batean dagoenak han ez jartzeko esaten duenean, zeozergatik esaten du, ez da kapritxo. Hori dezente ari gara lantzen, Espainiako Federazioarekin elkarlanean. Seguridadearen alderdia landu behar da asko, garrantzia handia eman behar zaio horri, proba bakoitzean asko dugulako jokoan. Jendearen laguntza behar dugu.

Eta ingurua errespetatzearen kontua...

Inguruarena lotsagarrikeria da. Antolatzaileek askotan poltsak ere banatu izan dituzte, zaborrak han jasotzeko. Zuri poltsa eman badizute, bukaeran bide bazte- ➔

►rean laga, ez da ezer kostatzen; baina ez ezazu ostikoz jo eta dena bota. Horrek ere kalte handia egiten du. Gero dena garbitzen da, baina lotsagarria da.

Ez zarete honetatik bizi, orduan?

Ez, ez, ez. Korritzen dutenak bezala, gehiago da afizioa, eta giroa... Zaila da. Hemen egin behar den lana da, automobilismoaren oinarria landu, eta hori karting-a da. Orain arte ez zegoen ezer, eta horri buelta bat ematen ari gara, ea nola lor dezakegun horri forma ematea.

Aipatzen duzun heziketa hori, nola landu beharko litzateke? Zer neurri proposatzen dituzue?

Nahi dugu neurriak hartzea. Hori txiki-txikitik landu beharrekoa da. Ni karretetara joaten nintzeanean, oso gaztea nintzenean, gustatzen zaizulako joaten zara eta, orduan, zuk badakizu gauza batzuk, logikoak direnak: han lanean ari denari kaso egin behar zaio, toki seguruan jarri behar zara... Nik uste dut hori galdu egin dela, baina ez automobilismoan bakarrik, orokorrean galdu dela iruditzen zait, ezta? Edukazio falta bat da. Bueno, eta dena txarra ere ez da, eh? Ikusleak non jarri behar ez diren esan eta jartzeko lekuak debekatu behar badituzu, era berean ikusleak jartzeko tokiak prestatu behar dituzu.

Zintak-eta jartzen ibiltzen gara, antolatzaileekin, eta jendea hasten da horiek errespetatzen. Hemen bihurgune batean zinta mordoa jarri behar duzu, eta Europa aldean agian zinta bakarra jartzearekin nahikoa izaten da... Baina, bueno, ez da hain txarra ere. Jendea ari da ahalegintzen.

Zuen kirolak pizten dituen aurkako iritzien aurrean, kontrapisu moduan edo, zer du esateko federazioaren presidentek?

Zer esango dizut, ba? Azkenean, kirol bat da eta kirol bezala hartu behar da. Eskiatzea bezala: batzuentzat eskiatzea txorakeria bat izan daiteke, baina ibiltzen zarenean... Batzuk uste dute hau ez dela kirola, baina ikusiko balute zer prestakuntza behar duen automobilismoan maila altuan dabilen pertsona batek, goial konzeptua erabat aldatuko lukete.

Baina zer nabarmenduko zenuke, automobilismoaz?

Ez dakit, ez nuke jakingo zer esan. Konbinazio bat da, makina batekin egiten duzun kirol bat, gauza asko dituen: adrenalina asko, abiadura... Abiadura da baina, azkenean, normalean proba batean azkar ibiltzen diren pilotuak gero ez dira ibiltzen kalean azkar. Gure kiroldegia edo kirola egiteko leku naturala zirkuitoa litzateke, baina kamioetan ere egiten da, errepidea kotxearen historiarekin lotuta

dagoelako... Gauza guztiak bezala da, edukiko ditu aldekoak eta edukiko ditu kontrakoak. Nik uste dut eztabaida antzua dela. Zuk egin behar duzuna da gustatzen zaizuna ondo egin, eta demonstratu behar duzu ez dela esaten duten besteko txarra.

Zirkuitua aipatu duzu. EAEn zirkuitu bat egitearen eskaerak hor jarraitzen al du?

Ari gara lanean, badaude proiektu batzuk eta uste dut azkenean aterako dela; baina, noski, gaur egunean gauden egoera ekonomikoa ez da oso ona. Zirkuitoarena, eta automobilismoa ere, beste puntu batetik ere ikusi

behar dira. Hor dago, adibidez, bideko segurtasunaren kontua, txofertzen erakustea. Federazio bezala, hori lantzea gustatuko litzaiuke. Guk horrelako gauzak bultzatu behar ditugu: umeei bideko segurtasuna erakusteko zirkuito bat prestatu, edo errepidea bustita dagoenean nola gidatu behar den erakusteko, elurrarekin...

Kirolaz gain, kaleko jendearekin ere lan egitea?

Bai, hori egin beharrekoa da. Baina guk daukagun zorte txarra da zirkuiturik ez daukagula. Espainia mailan kategoria askotako zirkuitoak daude, ia erkidego eta probintzia guztietan daude, baina hemen ez daukagu. Orain ari dira, Nafarroan, Los Arcosen; ekain bukaeran edo uztail hasieran inauguratuko dute. Oso harreman ona daukagu Nafarroako federazioarekin eta elkarlanerako hitzarmen bat sinatzeko asmotan gabitza.

Zure agintaldian lortzea nahiko zenukeen helburu berezirik bai??

Ni ari naiz hemen hitz egiten, baina ez naiz ni bakarrik. Hor talde bat dago, eta taldearentzat ederra litzateke automobilismoaren oinarri hori pixka bat lantzea eta gazteei aurrera egiteko aukera ematea. Agian bat edo bi iritsiko dira aurrera, agian inor ez, baina iristeko aukerak ematea.*

|||AZPEITIARRAK|||

Azpeitian kotxeekiko ez ezik automobilismorako dagoen zaletasuna ukaezina da. Inguruan antolatzen diren lasteketetan ikusten da, eta zenbakiek ere hala diote.

118 lizentzia ditu gaur egun Azpeitiak Euskadiko Automobilismo Federazioan.

24 pilotu eta 7 kopilotu azpeitiar ari dira modalitate ezberdinetan lehian.

2 elkarte edo eskuderia daude une honetan herrian.*



KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

**- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA**

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



ORDULARI



Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Mugikortasunaren etekinak

Azkenaldian oso gaurkotasun handia hartu du gure artean azpiegitura publikoak erabiltzeagatik bidesaria ordaindu beharraren eztabaidak. Ez da harritzekoa eztabaida pil-pilean egotea, urteak daramatzagulako iada A8 bezalako errepideak erabiltzeagatik ordaintzen, eta orain gainera bidesaria garestitzeko proposamena! Hau zilegia al da, kontutan izanda horiek eraikitze gure zergak erabili direla? Beti bezala ikuspuntu desberdinak egongo dira, baina historian atzera begiratzuz ez da gauza berria bideak erabiltzeagatik ordaindu beharra.

Horrela, Erdi Aroan, feudalismoaren garaian, jauntxoek bere lurak igarotzeagatik bidesaria kobratzen zieten merkatariei, beren produktuak garraiatzerakoan leku batetik bestera. Orduan ere paradoxa antzekoa gertatzen zen, agindupeko nekazariak eraikitako azpiegituren erabilerak —zubiak nagusiki— jauntxoaren diru sarrerak handitzea ekartzen zuelako berekin. Merkataritzaren hazkundea beraz jauntxoaren aberastasuna bermatu zuen urte askotan.

Gaur egungo egoerarekin desberdintasunak agerikoak dira, baina antzekotasunak ere hor daude. Desberdintasun nagusia gaur egungo gizartean mugikortasunaren fenomenoaren izugarritzko hazkundea da. Horrela, gipuzkoako langileen %60 gutxi gora behera egunero bere udalerritik mugitzen da, lan kontuak tarteko.

Orain dela 50 urte mugikortasun hau askoz mugatuago zegoen eta arrazoi nagusia aisiko egunetan eginiko joan-etorriak ziren. Gaur egun, aldiz, mugikortasuna probintziaren barnealdetik eguneroko gauza bihurtu da, eta gainera ez da lekualdaketa borondatezkoa baizik eta behartua, lan kontuak tarteko.

Guzti honek azpiegiturak hobetzearen beharra sortu du. Horrela, 1960ko hamarkadatik aurrera azpiegitura berri asko gauzatu dira



markel mendizabal

...badirudi azkenaldian etekina nagusitu dela azpiegitura publikoak kudeatzerako orduan


gure ingurunean, batez ere auto-bidezko mugimenduak errazteko.

Azpiegituren erabilera dohainik?

Aurrekoa gizartearen beharrei erantzuteko egin da, baina badirudi azkenaldian etekina nagusitu dela azpiegitura publikoak kudeatzerako orduan. Kontutan izanik gure zergen zati bat azpiegitura hauek ordaintzera doala, logikoa da galdetzea ea zilegi den beraien erabilera kobratzea. Aldundiak egin berri duen proposamenak Erdi Aroko jauntxoak merkatarien mugikortasun beharrarekin abarastearen kontua gogorarazi dit. Horrela, gure egunero mugitu beharrak zer etekin ematen ari zaie asko eta askori?

Urte asko daramatza martxan A8 dohainik izatearen aldeko kanpainak. Hau beraz ez da eztabaida berria, baina Aldundiaren etorkizunerako proposamenek ez dirudite gizartean dagoen eztabaida kontutan hartu dutenik eta etekina eta kudeaketa pribatua direla bere politikaren ardatzak.

Honen aurrean erantzuna da: Azpiegitura publikoak bai noski, baina dohainik!! ✖



Beharrezkoa al zen?

Oraindik sinestu ezinda nago Loiolako Etorbidearen erdi-erdian egin duten biribilgune hori erreala denik. Sinestu nahi gabe nago, sinestu ezinda baino gehiago. Amets arraro horietako bat dirudi, gertatutakoa erreala edo irreala dela bereiztu ezin duzun horietakoa. Munduak formula matematikoz funtzionatzen omen du. Logikaz, geometria legez. Baina, bazter guztietan loraz apainduriko biribilguneak egitea, paperezko planoetan lerroen gainean zirkunferentzia perfektuak marraztea gehiegizko moda urbanistikoa besterik ez ote den iruditzen zait.

Hemen erabiltzen den formula ez da logikoa, ez da matematikoa. "Hemen orain hau behar diagu eta egin egingo diagu". Gero geroak. Iruditzen zait batzuetan perspektiba galtzen dela etxeak eraikitzean eta auzo berriak sortzean, Etxebeltz-Izarrako etxe-multzo berria eraikitzean kasu. Astakerien artean handiena dela iruditzen zait non eta hor, Loiolako Etorbide handiaren erdi-erdian biribilgune erraldoi bat egitea.

Egia esan, gauza asko mugitu zitzaidan barruan lehengoan handik autoz igaro nintzenean. Txikitako oroitzapenak etorri zitzaizkidan burura, triziklo txikian lehenik, lau gurpildun bizikletan gero eta bi gurpilen gainean azkenik, Basilika zen helmuga eder hura Aranetik ikusten nuenean. Bidea zuzen nire aurrean, oztoporik gabeko zerurantzko bidea (zentzu metaforikoan, ez erlijiosoan).

Sinestu ezinik nago herri honen irudirik ederrenetarikoa eta enblematikoenetako bat jada desagertu dela. Bide zabala, ezki sendo zaharren artean eta urrun egon arren, argazkilarien magiari esker Basilika hain gertu ikusten genuenean.

Etxebeltz-Izarrarako sarrera-irteerak garbi gelditu dira. Ulertzen dut Ikasberri eta Olatz aldera sartzeko eta handik irteteko gurutzebidea ere hobetu beharra zegoela. Biribilgune honekin konpondu da arazo hori eta nire ustez biribilgune honek duen abantaila bat



||||| **olatz prat** |||||

||| Sinestu ezinik nago herri honen irudirik ederrenetako eta enblematikoenetako bat jada desagertu dela

da, bat eta bakarra. Beno, ez, bi ditu agian. Mendekutxo moduan, ideia bat: Azkoitia aldetik behar baino zurito gehiago edanda datorrenak Esklabetan kontrolik dagoen ala ez ikus dezake eta baiezko kasuan, buelta eman. Beraz, bi abantaila.

Gora Beverly Hills!

Bi abantailak konpentsatzen al dute Diego Garcia maratoi erdiko helmugatik korrikalariak esprinean zorioneko marrara urrunetik iristen ikusi ezina? Bi abantailak konpentsatzen al dute trizikloan doazen haurrek biribilguneako zebra-bide berria zeharkatzeko gurasoei itxaron beharra izatea, hiribide osoa pedalei eraginez gelditu gabe egiteko plazerak ukatuz eta helmuga urrunetik ikusi eta hartzekin ukitzeak ametsak zapuztuz?

Beharrezkoa al zen duela horrenbeste urte (mendeak ez esatearren) sortutako hiribide ederra pikutara bidaltzea? Beharrezkoa al zen Azpeitiko lerro perfektuena lorez apainduriko zirkunferentzia perfektu batez erdibitzea?

Beharrezkoa izan bada, gora galipota! Gora biribilguneak! Gora Beverly Hills 20730!*



ETORRI DA ITZALALDI ANALOGIKOA

ESKAINTZA BEREZIAK



SAMSUNG 32" B 450

399€



SAMSUNG 19" 933

185€

TELEBISTAK ETA INTERNETAK BAT EGIN DUTE.

TDT-AZ GAIN INTERNETEKO KONEXIODUN TELEBISTA BERRIAK ZURETZAT.

WI-FI, USB, Bluetooth, Ethernet...

Orain Youtube, Euskaltube... telebistan ikusteko moduan zaude, baita ere nahi duzun orrietan nabigatzeko.



SONY KDL 32" EX 500

699€



PHILIPS 32" PFL 8404

799€


INTERNETEKO KONEXIODUN TELEBISTA
BERRIAK IKUSGAI GURE ERAKUSTOKIAN



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97


HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Lan eskaintza euskaraz.

Sukaldean euskaraz arituz gero, jaki goxo askoak sukaldatzen dira. Bejondeiola lan eskaintza hau euskaraz egitea erabaki duenari. [Uztarria](#)

**BEHERA.** Euskarak ere lagunak behar ditu.

Laguna(k) bilatzeko juntaizoa antolatzea oso ondo dago, baina festaren berri euskaraz ere emanaz gero, alde ederra! [Uztarria](#)



Inazio Regil 'Matxote'.

ESANA DAGO

III “Garbi esango dut, umiltasuna alde batera utzita: Udalak niri omenaldia egitea erabaki badu, ziur nago merezitakoa dela. Zergatik ez ni omendu? ‘Matxotek ere mereziko dik’, esaten diot neure buruari”

INAZIO REGIL
kaldereroa

III “Sahararrek bizi duten egoera (estaturik gabeko herria, asko ihestuta) beharbada euskal herritarrok beste sentsibilizazio batekin hartzen dugu. Identifikatuta sentitzen gara”

XABIER EUZKITZE
Saharautzeko lehendakaria



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guraso eta jarraitzaile (II)

Oraingoan seme alaben kirol bizitzan gurasoek duten garrantziaz arituko naiz.

Kontuan hartu behar da, kirol bizitza oso luzea dela. Gero eta luzeagoa, gainera. Azken urteetan, zorionez edo zoritxarrez, haurrak kirolean murgiltzeko batazbesteko adina murritzuta egin da. Luzea eta aldakorra, haur batek kirolean murgiltzen denetik uztera iristen den arte gora behera asko izaten dituelako, kirolean zein bizitzako beste aspektu askotan, kirol bizitzan eragina dutenak.

Errealitatea hau izanik, *lasaitasuna, pazientzia eta babesa* dira gurasoek hartu be-

harreko jokamoldeak, eta ez askotan gertatzen den moduan, *urduritasuna, neurritz kanpoko ilusioak eta entrenatzaile papera*. Haur bat, hamar urterekin, Euskal herriko txapel-dun izateak, hamar gol sartzeak, 20 kopa irabazteak edo 20 puntu egiteak ez du esan nahi 20 urterekin gauza bera egingo duenik, edo 20 urterekin profesional izango denik. Eta, zoritxarrez, askotan gertatzen da, hamar urte dituen haur baten gurasoek, Messi bat, Gasol bat edo Irujo bat ikustea. Horrek ez dio inolako onik egiten haurraren kirol bizitza—berriro diot—luzeari.



aitor zulaika

Amaitzeko, pare bat datu edo errealitate adierazi nahiko nituzke hausnarketa moduan. Alde batetik, adibidez, Zubietatik pasatzen diren 100 haurretatik 98 ez direla lehen taldera iristen, nahiz eta beste biak diren guk egunero komunikabideetan ikusten ditugunak. Bestalde, gure herriko futbol jokalaria profesionalen ibildibidea. Gehienek adinean aurrera eginda egin dute Zubietarako edo profesional mundurako jauzia, eta ez hamabihamala urterekin. Besteak beste, Larrañaga, Orbegozo, Bixente, Alberdi, Labaka, Mendiñeta...✕

IKUSTEKOAK



EDUKIONTZIAK PELOTOIAN.

Autoen aparkalekuan hamar kontainer daude iladan, Loiolako Inazio Hiribidean. Auzo horretako bizilagunek zaborra botatzeko errepidera atera beharra dute, nahi eta nahi ez. Estetikoki ez da batere polita eta aterabide egokiak izan litezke lurrazpiko zabor biltzaile sistema jartzea edo kontainer gutxiago jarri eta zabor-biltzaileak sarriago pasatzea. ✎✎ Ainitze Agirrezabala✕

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



'Ero'-likoa

GAZUME. Libratu da, "oraingoz" zentral eolikoa bere magalean jasotzetik. Lasai ibili daitezke hango txoriak, edozein momentutan errotatzar baten besoak jota akatuko dituen beldurrik gabe. Energia berriztagarriak beharrezkoak dira, baina horretarako aukerak badira gure mendi magalak izorratu gabe ere. Hala ere, hainbeste energia behar badugu, zer sakrifikatzeko prest gauden ere pentsatu beharko dugu.



oihana elduaien



Saltsa ederra

APOSTUA. Harri jasotzen, aizkoran eta lasterka. Saltsa ederra jarri zuten Alex Txikonek eta Joseba Otaegik zezen plazan. Animaliei sufriaraztea baino erabilera hobea eman zioten zezen plazari. Sarrerak zer prezio zuen ikusita, ez dute meritu makala plaza bete zuten bezela betetzeko.



Txapelketa bakarrik ez delako

BERTSO ELEGANTEAK. Ezin daiteke ukatu Euskal Herriko Bertsolari Txapelketak xarma berezia duenik. Baina, bertsoa ez da hori bakarrik, eta hori ondo baino hobeto dakite duela hamarkada bat sortu eta lanean hasi ziren Erriarraitz Bertsozale Elkarteak kideek. Bertso Ele-

ganteak, bertsopapera, koplak, jardun zirikatzailea... Barakaldoko BECen ez zen ikuskizunik izango hainbeste urtez herriz herri Erriarraitz gisako gainontzeko taldeak lanean jardun ez balira. Eskerrikasko guztioi!*

INKESTA

zer iruditzen
zaizu atez ateko
zabor bilketa?

 Ainitze Agirrezabala

ALEX SILVA

langilea



“Bost edukiontzirekin ez da ziurtatzen fundamentuz

birziklatzea. Atez ateko bilketarekin, berriz, jendea inplikatzu gero, %80a birziklatzea lortzen da. Sistema ona iruditzen zait eta Azpeitin ere jarri beharko litzateke”.

MARTIN ALEGRIA

erretiratua



“Ezinbestekoa da, herritar guztiok egin beharko genukeen

gutxienekoa. Zaborra duen ezer ez guke eosi behar. Nik birziklatzen dut eta guztiok horretara jarri behar dugu”.

ANDER LASA

ikaslea



“Oso sistema ona iruditzen zait. Banaketa

honekin, ohiko edukiontzira ez dugu edozer gauza botako eta, beraz, lur azpira zabor askoz ere gutxiago joango da”.

IÑAKI AGIRREZABALA

langilea



“Sistema egokia da oso. Usurbilen bezala hemen ere egin dezatela

herri-kontsulta. Horrenbeste zabor sortzen ezin dugu segitu. Birziklatzeko konpromisoa hartu behar dugu herritarrok”.*

Denbora asko

Neu gogoratzen ez naizen arren, 1988ko abenduan jaio nintzen. Zestoan bi urte pasa bizi ondoren, Azpeitira etorri nintzen bizitzera.

Umea nintzen Karmelo Etxegarainen publikazioa eman zenean, eta horren ondorioz Ikasberri Ikastola sortu zenekoan. Manifestazio mordoan egin genituela gogoan daukat, baita ikasteko toki finkorik ez genuela izaten ere. Jesus Mariatan, Loiolako aterpetxean, eta Musika Eskolako lokaletan ibili baikenen, besteak beste. Istiluak istilu, orain ezagutzen dugun ikastola eraikitzen hasi ziren, eta urtebete pasaz lokal ezberdinetan ibili ondoren, bertako ikasgeletan klaseak ematen hasi ginen.

Urteak pasata, nire lehenengo parrandatxoak botatzen hasi nintzen. Goizo bueltatzen nintzen hasieran, gero eta beranduago joaten hasi nintzen denborarekin, eta azkenean, karnabal batzuetan nire lehenengo gaupasa egin nuen. Ordutik batzuk egin ditudala aitortu beharra daukat.



XXXXXXXXXXXX **xabier otamendi** XXXXXXXX

Denborarekin, Azpeitiko Gaztetxera sarri joateko ohitura hartu nuen, eta oraindik halaxe jarraitzen dut. Batxilergoa eta ditxosozko selektibitate espainiarra gainditu ondoren, beste asko bezala, unibertsitatean matrikulatu nintzen. Egun, lizentziatura amaitzeko esperantzan nabil.


Bizitza interesgarria irudituko zaio agian norbaiti, beste askori aspergarria seguruenik (jakin ezazue egin ditudala hemen aipatzen ditudanak baino gauza gehiago), baina gutxienez, neure bizia osatu dut edo osatzen ari naiz behintzat. Gauza asko pasa dira 1988ko abendu hartatik, eta zenbait pertsona falta izan dira gertaera horietan, berauek bizi diren arren. Izan ere, asko dira ni jaiotzerako preso eraman zituztenak, eta oraindik hala jarraitzen dutenak. Nire bizitza osoa baino gehiago daramate espetxean, eta oraindik tinko eusten diete beren ideiei. Ordutik sartu dituztenak ere ikaragarri dira, sei azpeitarrak dira, hain zuzen ere.*

galdetzen hasita, oLazko bidegurutzeko salbearekin zer gertatuko da, Loiolako etorbideko Lanen ondoren?  **Uztarria**

Norbere esku ere bai

Gu aspalditik gaude krisian”. Azokan egoten diren bi baserritarrek hala esan diote *uztarria.com*-i. Ez naiz pertsonarik egokiena baserriaren apologia egiteko, nik neuk aspaldi egin bainuen kalera jaisteko hautua. Inoiz ez nau tentatu ukuilurako bideak, eta ezta baratzarakoak ere. Neure borondatez erabaki nuen, beraz, bizimodua lehen sektoretik aparte bilatzea. Egoera aldatu ezean, derrigorrean egin beharko dute beste batzuek.

Esne ekoizleek, esaterako, galeretan ari direla diote. Eta hori ez da lan asko egin eta gutxi irabaztea, ekoizte hutsagatik egunero zorra pilatzen joatea baizik. Epe batean soilik jasan daitekeen egoera. Datuen arabera, litroa ekoiztea 40 zentimo kostatzen zaie, eta trukean, 30 zentimo jasotzen dituzte. Etorbizunera begira, gainera, ez dirudi gauzak asko aldatuko direnik. Gogor salatu dituzte Europako Batasunak indarrean jarri nahi dituen neurriak, 2015ean esne kuota kentzeko asmoa, esaterako.



XXXXXXXXXXXX **miren garate** XXXXXXXX

Bitxi da, baina hala da. Bruselan erabakitzen dira lizarraizpean jarraitu beharreko nekazaritza politikak. Nekazaritza Politika Bateratua asmatu zuten horretarako. Hau da, Europako Batasuneko nekazari guztiak zaku berean sartu, eta denei neurri berdina aplikatzea erabaki zuten. Plan garrantzitsua da, Europako Batasuneko aurrekontuaren erdia gastatu da hartan. Tamalez, diru hori banatzeko irizpideetan egiten zuten huts ministroek. Eta NPBaren %70 ekoizleen %20k jasotzen dute. Politika Bateratua ez baita berdintasuneko politika. Eta horrelakoei ohi denez, handienen eta gutxien behar dutenei egiten die mesede.

Hala ere, Europako neurriak gaitzesteari utzi, eta kritika norbere etxetik hastea hobe. Euren ekoizten dituzten produktuak erostea bezalako laguntzarik ez baitago baserritarrentzat. Bistan da supermerkatuan 60 zentimo balio duen esne kaxak ez dituela Euskal Herriko ekoizlearen gastuak berdintzen.*



Txerri boda

Matxinbentako Zuaneta auzoko Txikertarrean 120 kiloko txerria hil dute. Euskal Herriko baserrietan galtzen doan usadioa da. 📞 Ainitze Agirrezabala



▼GAROTAN ERRE.

Behin txerria hilda, garo lehorrarekin estali zuten, sua eman eta ileak erretzeko. Txerria hiltzeko ardura Matxinbentako Largarate Beheko Martin Etxeberriak izan zuen. Laguntzen aritu ziren Imanol eta Xabier Olaizola anaiaak eta Jexux Mari Txato eta Xuban Oiarzabal aita-semeak.



▲TXERRI-HILTZEA.

Otsailaren 13an egin zituzten txerri bodak txikertarrenean. Goizeko 11:00etan zuten hitzordua. Luzapenetan ibili gabe, ukulura sartu eta 120 kilo inguruko txerri urrixa gantxoz heldu ondoren, mahai gainean jarri zuten etzanda, hiltzeko.

▼AZALA GARBITU.

Erre ondoren, eskuila latzarekin eta mangerako urarekin txerriaren azala garbitzen dute.





▲ HARAGIA HOZTEKO, ZINTZILIK.

Txerriari barruak kendu eta zintzilik jarri ondoren, haragiari hozteko denbora eman behar zaio txikitu aurretik. Kokotean eta bizkarrean goitik behera bi ebaki egiten zaizkio. Esaera ezaguna da txerritik ia gehiena aprobetxatzen dela. Txerriak bizirik pisatzen duenaren %28a besterik ez da galtzen.

► LANA ATARIAN ETA SUKALDEAN.

Baserri atarian ez ezik, sukaldean ere lana franko izaten da. Odola bilduta, txerriak txikitu eta porrua, tipula, piper hautsa eta gatzarekin nahastea besterik ez dago, odolkiak egiteko. Argazkian, Milagros Odriozola odolkiak egiten.

▼ PASEOA QUAD-EAN.

Baserrira ere heldu da teknologia berria. Txerria ganbarara indarka igo beharrean Quad-ean eraman eta mandiotik sartuko dute.



▲ TXERRIA PUSKATUTA.

Behin txerria hoztuta, haragia puskatu eta urdaiazpikoa, txorixoa, xolomoa... sailkatzen dituzte, traktore gainean.





▲ **BARRUAK ETA AZAZKALAK KENTZEKO PROZESUA.**

Urte guztirako etxerako haragia bermatzen du txerri boda egiteak. Garai batean jai eguna ere izaten zen txerria hiltzeko eguna. Txerriari barruak ez ezik, azazkalak ere kentzen zaizkio. Lehengo gizon-emakumeek kandelak itzaltzeko erabiltzen zituzten txerriaren azazkalak.

▼ **HAMAIKETAKOA, BAPO GERATZEKO.**

Txerria hil eta lanak bukatuta mahaian eseri eta hamaiketako ederra egiteko garaia heldu zitzaizen gizonen. Milagros Odriozola etxekoandreak, ordea, arratsaldean zuen lanik handiena, odolkiak eta txorixoak egiten.*



Koadrilan, intimitatean

Herrian alokairuan hartutako lokalak gazte askoren bilgune bilakatu dira. Koadrilekin eta hainbat talde eragilerekin hitz egin du Uztarriak. 📞 Ainitze Agirrezabala

Gazte askoren bilgune bilakatu dira koadrilen artean herrian alokairuan hartutako lokalak. Egunero egoten ziren taberna zulotik atera, eta beraien gustura antolatu dituzte hilean 800 bat euroren trukean hartutako industria-nabeak, garajeak edo lokalak. Sartu eta denetik dute: sofak, telebista, *play-station*-a, barra, jatekoa, edatekoa...

Azkenaldian indar handia hartuz doan errealitate honetaz, ordea, zer nolako hausnarke-ta egiten dute herriko hainbat talde eragilek? Zerk bultzatzen ditu gazteak lokaletan bildu eta beraien zirkuluan ixtera? Gazteak lokalean biltzea herriko hainbat auzotako bizilagunen zat buruhaustea ote da?

Duela bi hilabete hartu zuten lokala Yuri Agirrek eta haren koadrilak, Arana Goikoa kalean, garai bateko Urolalde formazio zentroan: "Inmobiliaria baten bidez aurkitu genuen lokala. Kontratua sinatzerakoan, ordea, arazoak izan genituen, asko atzeratu baitzen kontua". Urolalde zentroak gela asko ditu eta jabeak lokala alokairuan dena batera ematea nahi zuela kontatu dute. "Zentroaren zati bat, ordea, magrebiar batzuek hartu nahi zuten

Herrian
hamabost bat
gazte koadrilek
lokalak alokairuan
hartuta dituzte la-
kalakulatzeko du-
dalak

mezkitak egiteko, baina azkenean bakoitzak geure aldetik alokatu behar izan dugu lokala, magrebiarrak ez ziren eta beraien artean ados jartzen".

Hogeita hamasei lagun artean hartu dute lokala eta hilean 800 euroko alokairua ordaintzen dute. "Denak mutilak gara, koadrilakoak eta bakoitzak hilean 20 euro jartzen ditugu. Hortik dirua sobratzen denez, jatekoa eta edatekoa erosten dugu eta erositako prezioa baino garestiago saldu. Ateratzen

dugun irabazia lokalerako behar duguna —sofak, jatekoa...— erosteko erabiltzen dugu. Lokaleko beste mutil baten esanetan, "askok gurasoek emandako pagatik ordaintzen dute hileroko alokairuaren kuota".

Egunero joaten dira lokalera, eta hainbeste lagun izanda, sofaz betetako egongela handi bat dute, baita telebista eta ordenagailua ere: "Sofa batzuk eta telebista zaborretatik hartu genituen, baina baditugu sofa berriagoak, bigarren eskuko denda batetik erostea", kontatu du lokaleko mutiletako batek. Egongela horrez gain, badute beste gela bat ere: "Barra dugu han, jatekoa eta edatekoa, sofak eta telebista bat *Play-station*-ean jokatzen. Gure asmoa, gela honetan ping pong-eko mahai bat jartzea da".

Lokalik ez zutenean, tabernan

Hasi hamazazpi urtetik eta hogeita bi urte bitartean dituzte. Lokala hartu aurretik, gazte-txean edo Neguda tabernan egoten zirela adierazi du Agirrek: "Orain, ordea, lokala dugula ez gara tabernara edo gaztetxera joaten". Larunbat gauetan-eta, bakarren batzuk

lokalean hantxe, “sofan etzanda, egonean” geratzen direla kontatu du, baina, normalean, arratsaldetan lokalean egon eta gauean parrandara kalera ateratzen direla dio: “Butanorik edo surik-eta ez dugu lokalean, baina tar-teka, ogitarteko edo pizza batzuk erosi, lokalean afaldu eta kalera ateratzen gara”.

Hirugarren lokala

Duela bost bat urte izan zuten aurreneko zokala, koadrilan: “Madalena auzoan, garai bateko hiltzearen atzekaldean lokal txiki bat genuen, hamabost lagun arteen. Hango alokairua askoz ere merkeagoa zen, 200 euro azpitik ordaintzen genuen, hilean”.

Harrezkero, Elizkalean izan dute beste lokal bat ere. Agirreren esanetan, koadrila handiagoa ziren eta “bizilagunekin dezente-ko arazoak” izan zituzten: “Lokala bera ere ez zegoen batere ondo, egurrezko atea zuen eta dena entzuten zen kanpotik. Larunbat gauetan, berriz, parrandan zebilen kanpoko jende asko sartzen zen”. Bizilagunek deituta udaltzainak behin baino gehiagotan etorri zitzaizkiela kontatu dute. “Etxepekoak kexatzen jarraitu zuten eta lokalaren jabeak esan zigun denak presioa egiten ari zitzazkiela, eta horrela ezin zuela jarraitu. Hurrengoan, kexaren bat entzuten bazuen, lokala utzi beharko genuela adierazi zigun. Norbaitek esango zion zerbait eta, lokaletik alde egin behar izan genuen”.

Landetan, industria-nabea

Herri barruan ez ezik, Landetako industrialdean ere bost bat gazte koadrilek nabeak dituzte alokatuta. Landetako lokal bateko gazteekin hitz egin du Uztarriak: Eneko Lizarralde, Beñat Aldalur eta Jon Lopetegirekin.

Aste Santuetan urtea beteko da hiru koadrila elkartu eta industria-nabe bat hartu zutela. Aldalurren esanetan, “koadrila bakar baten artean hartzeko jende gutxi ginen, eta hilero ordaindu beharrekoa asko zen”. Hogeita hamalau lagun dira, 28 mutil eta sei neska eta hilean 750 euroko alokairuari egin behar diote aurre. “Neguan gutxi joango ginela eta jabeak 50 euro jaitsi zigun alokairua. Laister, ordea, 800 euro ordaindu beharko dugu”.

Hasieran, lokalak begiratzen kalean ibili zirela diote, baina bizilagunek “traba asko” jarri zitzaizkiela eta Landeta aldera jo behar izan zuten. Lokalaren jabearekin zuzenean telefonoz kontaktatuta hartu zuten nabea: “900 euro eskatzen zizkigun, baina argi-indarrrik ez zegoen, ezta komunik ere. 800 euro nahikoa zirela esan genion. Kostata, baina komuna ja-



Yuri Agirre eta koadrila, Arana Goikoan garai batean zen Urolalde formazio zentroan duten lokalean.

beak berak jarri zigun. Argi-indarra geuk sartu genuen, 400 euro ordainduta”.

Solairu bakarrek nabea da, “ikaragarria”, 270 metro koadrokoa. “Neguan hotza pasatzen genuen eta ohol batzuekin gelatxo bat egin genuen, babesean egoteko”. Lokala hartu berritan, ostegunero-ostegunero denak “ijitoen pare” zaborretan telebista, hozkailu eta sofa bila ibili zirela kontatu du Lizarralde: “Horrela aurreneko bi-hiru hilabetetan ibili ginen, geneukan emozioarekin”.

Bizikletan edo oinez joaten dira lokalera. Lopetegiren esanetan astebururo biltzen dira, baina astegunetan ez dira egunero joaten: “Entrenamenduak edukitzen ditugu eta, gainera, kaletik urruti geratzen da. Aurten 18 urte beteko ditugu eta gida baimena atera eta kotxean joateko modua izango dugu”.

Lapurretak lokalean

Hilean bakoitzak 25 euro jartzen ditu eta so-bratzen dena gozokiak edo lokalerako zer- ➤



Landetako lokaleko lau lagun musean. 270 metro koadroko lokalean gelatxo bat atera dute, neguan epelago egoteko.

►bait erosteko erabiltzen dute. Hileroko diru kontuetan, ordea, behar baino diru gutxiago biltzen dutela diote: "Hartu asko, sartu gutxi eta poltsikora gehiago sartzen duenen bat badago lokalean. Kontuek ez zutela koadratzen-eta, kaja fuerte batean hasi ginen dirua gordetzen, baina lapurrak sartu eta eraman egin zuten". Tabernan egoten zirenean baino "askoz ere gutxiago gastatzen" dutela diote: "lehen Intz tabernan sartuta egoten ginen arratsaldero eta lehenengo kafea, gero coca-cola, gero patata zorroa... sekulako gastua egiten genuen egunero".

Bizilagunen buruhaustea

Gazte koadrilak lokaletan bildu izanak "buruhauste ederrak" sortu izan dizkie hainbat bizilaguni. Elizkaleko auzotarrek kontatu dutenez "tira-bira latzak" izan dituzte han lokala izandako koadrila batekin. "Haiek alde egin zuten eta suerte ederra dugu orain", diote. "Izugarritzko koadrila zegoen, 24 orduko zarat egoten zen, lokala batere isolatu gabe, lehio guztiak irekita sekulako zigarro eta porru usaina heltzen zitzaigun etxeetara. Pixa egitera noiz edo noiz tabernaren batera joan-

Inolako araudirik gabe

|||Lokal hauen inguruan jasota "ezertxo ere ez" dagoela adierazi du Azpeitiko Udaleko EAJko zinegotzi Iñaki Etxezarretak: "Ez dago ordenantzarik, ez araudirik. Ez daude formalizatuta, baina urte honen barruan kontua erregulatzea da gure asmoa".

Arazorik ez dagoen bitartean, lokala dutenei "trabarik ez" dietela jarriko azaldu du: "Bizilagunen aldetik ez dugu kexa askorik jaso. Elizkalean lokala zuten gazte batzuekin izan ziren tira-birak, baina haiekin hitz egin genuen eta errespetatzeko eskatu zitzaion".

Etxezarretaren esanetan Udalean gaia duela hiru bat hilabete planteatu zuten:

go ziren, baina edozein momentutan pixa erreka latzak egoten ziren kalean".

Gazte haien jarrera "oso aldrebesa" zela adierazi dute; baina "kulpa guztia ez zuten beraiek, inork ez baitzuten kontrolatzen. Oso bihurriak ziren eta lasaiago ibiltzeko esanaz beraiekin hitz egitera joan eta handiagoak entzun behar izaten genituen. Oso gogorra

"Beste herrietan kontu hau nola landu duten ikusi nahi dugu, pixka bat aztertu eta zer trataera eman erabakitzeko". Eibarren kontu hau erregulatu zutela urte bete inguru dela kontatu du zinegotziak.

Lokal horiek sailkatu eta figura bat emateak "beldurra" ematen diola ere adierazi du: "Bide horretatik oinarritzko baldintza batzuk finkatu beharra dago eta, noski, horiek legeztatzean lokal horiek ez daude baimentzerik. Orduan, zer egin behar dituzu itxi? Arazorik egon ez, gutxieneko baldintzak betetzen badituzte eta ondo moldatzen diren bitartean, ba ondo".

zen. Behin goizeko 04:00etan esnatu ninduten, norbait akabatzen ari zirela ematen zuen. Hura desdita! Jantzi eta behera jaitsi nintzen zer pasatzen zen ikustera".

Askotan, udaltzainei deitu eta "kasurik ez" zietela egiten ere esan dute. Nolanahi ere, "gazte lokalak bezain txarrak edo txarragoak zenbait taberna" direla azpimarratu dute.

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Lorola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.irenealtunadenda.com

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

Harremanak sendotuz

Koadrilak lokaletan zergatik biltzen diren eta beraien zirkulura mugatzera zerk bultzatzen dituen ezagutzea beharrezkoa dela diote Gaztetxeko kideek eta Baliabideetako hezitzaileek.

Azpeitian betidanik esan izan da gazteek euren koadrilakoez gain, harreman gutxi dutela gainontzekoekin. Bakoitza bere koadrilara mugatzen dela, gazte itxiak direla azpeitiarrak. Herrian gaztelekua, tabernak eta gazte-xtea egonagatik, geroz eta koadrila gehiagok hartzen dituzte lokalak alokairuan. Errealitate horretaz hausnarketa egin dute Gaztetxeko Gazte Problematika-lan-taldeko kide Xabier Izagirrek eta Ainara Pie de Hierrok eta, Baliabideetako hezitzaileek: Haizea Egigurenek eta Aloña Larrañagak.

Gazteek lokalak alokairuan hartzeak "koadrilismoa geroz eta gehiago bultzatzen" duela adierazi dute Gaztetxeko kideek eta Baliabideetako hezitzaileek. Koadrilak lokaletan biltzea ez dela izatez "txarra" diote, baina lokal horiei ematen zaien erabilpen hori zer-

tara mugatzen den aztertu beharrezkoa dela uste dute. "Koadrilak lokaletan zergatik biltzen diren eta beraien zirkulura mugatzera zerk bultzatzen dituen ezagutzea beharrezkoa" dela diote. Horren aurrean, eta herriko koadrilen arteko "harremanak sendotu" asmoz, "topaketak edo gisa horretako zerbait" antolatzea egokia ikusten dute.

Hausnarketarako eguna

Denbora librean pasatzeko moduan "garaia asko aldatu" direla diote Hezitzaileek. "Garbi dago gazteek behar bat dutela beraien intimitatean egoteko edo, igoal, ez dira identifikatuta sentitzen herrian eskaintzen diren beste zerbitzuekin eta, behar horri erantzuteko jotzen dute lokaletan biltzera". Egigurenen esanetan, "ez da txoko bat behar dutelako bakarririk. Txokoak egon badaude he-



rrian, baina ez dute nahasterik nahi. Hori herriko kultura da, 'koadrilismoa'". Larrañagaren esanetan, egun gazteei ematen zaizkien "aukerak handiak" dira: "Etxean, gurasoek ematen dietenarekin ordaintzen dute lokalaren alokairua. Han barruan egiten dutenaz gurasoek izango dute kezka, baina behintzat badakite non dauden, lagunarte bat dutela". Gaztelekuan, gaztetxean... "jende desberdina" bildu eta "harreman desberdinak" egiten direla dio Egigurenek: "lokalak bezalako guneak beti zazpi aurpegi ikustea dakar. Lokaletan biltzeak ez du zertan txarra izan, baina aztertu behar da zer balore transmititzen diren horretatik: indibidualismoa, itxitasuna... Lokaletan biltzea, egungo gizartearen islada garbia da. Guk hori bultzatzea behar al dugu, edo, beste lanketa bat egin beharra dago?".

Elgoibarren, esaterako, lonjak edo lokalak alokatu nahi dituztenei udalak laguntzak ematen dizkietela azaldu dute. Larrañagak adierazi duenez, "konpromiso bat eskatzen zaie gazteei, lokalak egitura bat eduki behar du eta baldintza batzuk bete behar dituzte. Eta, hori ia inplikaturako lokal bat izango litzateke, ez gazteen lokal bat". Hau guztia aurrean, hezitzaileek garbi dute "kendu ezin dela ezer egin, baina dagoenetik abiatu eta lokalak biltzen hasteko hausnarketarako egun bat jartzea eraginkorra" izan daitekela uste dute.

Arazoa, egonean egotea

Lokalen kontuan ere, dena ez da txuria edo beltza. Pie de Hierroren esanetan, "tabernetan ere 'koadrilismo' tankerako zerbait gertatzen da; Korraleko koadrila, Intzekoa, Orkatzekoa... egiten ditugu". Gazteak lokaletan biltze hori "tabernetako kontsumismo horretatik ateratzeko modu bat" izan litekela dio: "prezioak gora doaz, jendeak ez du lanik... Azkenean, 30 bat lagun artean lokalak hartzea moduz ateratzen da". Izagirrek dio, "koadrilak beraien baitan ixteaz gain, jendea ezer ez egitera mugatzen da. Ostiraletan, larunbatetan... parrandara atera eta jendea ezagutzen duzu; lokalak edukitzeak ez du esan nahi egunero han sartuta egon behar denik". Lokala eta gaztetxearen arteko desberdintasun nabarmena hori dela dio Pie de Hierrok. "Telebista ikusi, play-station-ean jokatu... Lokalean han, egonean egote hori... niretzako hor dago arazoa. Gazteak, normalean, aktiboak gara, gauzak egiteko gogoak dugu eta gaztetxeak aukera hori ematen du".

Lokaletan beraien txokoan sartuta dagoen jende hori pixka bat kalera ekartzeko planteamendu seriorik ez, baina ideia batzuk komentatu izan dituztela azaldu du Izagirrek: "Gero, zaila izaten da. Batzuegana heltzen zara, beste batzuegana, berriz, ez..."✱



Ezkerreko argazkian, Haizea Egiguren eta Aloña Larrañaga, Baliabideetako hezitzaileak. Eskubian, berriz, Xabier Izagirre eta Ainara Pie de Hierro, Gaztetxeko Gazte Problematika lan-taldeko kideak.

Ekologikoa, hobe

Nekazaritza ekologikoa lantzen dute Loiolako Urkizu ustiategian. Azpeitian kontsumo taldeen dinamika bultzatu asmoz dihardute lanean. 📞 Nekane Zinkunegi

Zenbat aldiz erreparatu ote diegu erosi aurretik tomateen gorritasunari eta tamainari, porruen loditasunari eta luzerari, letxuga-hostoen dizdirari... Baina, inoiz jarri al gara pentsatzen produktu horiek merkaturatu aurretik izandako trataeraz? Uzta-rria Loiolatik aurreraxeago negutegiak dituen bikote batekin izan da, kontu hauetaz mintzatzeko.

2005. urtetik dihardute Juan Urkizu eta Amaia Irazustak nekazal produktuen ekoizpenetik eta salmentatik bizitzen. Urkizu baserriarra da jaiotzez eta betidanik aritu izan da nekazaritzarekin edota baserri-munduarekin loturiko jardueretan. Hargatik, orain bost urte elkarrekin hasi ziren senar-emazteak jardue-
ra hori ogi-bide bezala hartuta lan egiten.

Garai batean, Zarautzen aritzen ziren horretan, baina azken urtebetean, Azpeitian dihardute. Herriz aldatzearekin batera, lanerako modua ere aldatu dute, egun produktuak ekologikoki ekoizten baitituzte. “Geure inizatiba propiotik etorri zen modu honetan lan egiteko asmoa”, dio Urkizuk. “Gainera, frogatu egin dugu inongo substantzia kimikorik erabili gabe ere ekoiz daitezkeela nekazal-produktuak”, gaineratu du Irazustak. Euren egunerokotasunean laguntzeko, Tania izena duen neskak egiten du negutegietan lan beraiekin batera.

Kontsumo Taldeen egitasmoarekin lan egiten duen Biolur-eko —Gipuzkoako nekazari



Produktu ekologikoekin osatutako otarra.

ekologikoen elkarteak— kide dira. Elkarrekin honen filosofia, produktu erabat naturalak, modu ekologikoan ekoiztuak, baserriarraren eskuetatik zuzenean bezeroei eskuragarri jartzea da. Hain justu, Azpeitian jarri nahi lukete martxan Kontsumo Taldeen dinamika eta sal-erosiko diren produktuak urkizutarrek ekologikoki ekoizten dituztenak lirake.

Salmentak Internetez

Datu aipagarri bezala, Internet bidez gauzatzen duten salmenta legoke. “Hiru urte darabazagu horretan, www.urkizu.es da gure web gunea eta bertan produktu ekologikoen erosketa burutu nahi duenak badu horretarako aukera”. Horretarako, urratsak honakoak

lirateke: webgunean sartu eta erosteko interesa duenak, e-posta bat igorri behar du. Ondoren, asteazkenero dituzten kontaktu guztiei aste horretan zein produktu dauden eskuragarri helarazten diete e-postaz. “Astebururako bakoitzak bere produktu-sorta zein den esanaz erantzuten du eta astelehenean banaketa egiten dugu”, dio Irazustak. Hasieratik izan dituzte Donostia, Hernani edota Irun aldetik eskaerak. Urkizuren esanetan, “leku horietara geure kasa joaten hasi ginen eskurikoa entregatzera”. Baina, gerora, lan-karga handi samarra zenez garraio horretaz arduratuko zen enpresa bat kontratatatu zuten: “Orain, Azkoitiko banaketak baino ez ditugu egiten geuk”.

Internetez saltzeaz gain, negutegietara hainbat jende etortzen zaie produktuak erostera. Urkizuk adierazi duenez, “bezeroek eskaera pertsonalak egiten dizkigute eta horren arabera kaxak prestatu ohi ditugu saltzeko”. Produktu ekologikoak kontsumitzera geroz eta jende gehiago animatzen dela dio. Maiz, kontraesanak ere agertu ohi direla esan dute: “Gizartea oro har supermerkatuan dagoenarekin konformatzera ohituago dago garai hauetan eta, aldi berean, produktu ekologikoen joera gora darrai”.

Ez dute inongo zalantzarik modu ekologikoan ekoiztutako produktuen kalitate hobea. Irazustaren esanetan, “geu izan gara ohiko nekazaritza, produktu kimikoen era-

bilpenaz baliatuz lan egin dugunak ekologi-kora igaro aurretik. Eta, lehendik hona, nabaritu dugun ezberdintasun handiena, orain negutegi barruan dagoen bizitasuna da: igelak, txoriak, tximeletak...”

Bitxikeriak ere bai

Ekoizpen ekologikoak izan dezakeen alde txarra, “begiekin jatera ohituegi egotea” dela dio Urkizuk. Oso garbi dute inolako produkturik bota gabe ere, ekoizpena zilegi dela eta gerta daitekeena, itxura ez hain oneko produkturik irtezea omen da. Horren harira, anekdota interesgarri baten berri eman dute: “Behin, azelgen hostoetan onddo bat agertu zitzaigunn. Biolur-eko teknikariak produktu natural bat erabiltzeko aholkatu zigun eta hori ere ez botatzea erabaki zuten; Onddo zuen hosto berdea kendu eta zati zuria *penka* bezala saltzearen alde eginez”.

Bitxikeria horren aurrean, ironikoki dio Irazustak: “Prest gaude maskarekin sufrea botatzen ibili garen tomate batzuk jateko eta modu naturalean onddo bat sortu zaion azelga bat berriz ez dugu begien aurrean ikusi ere egin nahi”. Juanek ere hala dio: “Mehexagoak izan arren, hobeak dira ekologikoki ekoiztutako porruak; herbizida botatako porru handi eder batzuk jatea baino”.

Kontsumo taldeen dinamika

Euren lanerako modua “eraginkorra” dela sinesten dute eta horri probetxua ateratzeko Kontsumo Taldeen dinamika bultzatzearen alde daude. Azaldu dutenez, talde horrek erabakiko luke otarrak zein eratakoak liraten, zenbateko maiztasunez jarriko liraten eskuragarri, lokal bat beharrezkoa litzatekeen edota etxez-etxeko banaketa komeni den... “Guretzat erosoena, otarra guztiak bezero guztientzat berdina izatea litzatekeen arren, ezin dugu inor ezer kontsumitzera behartu”, dio Juan Urkizuk.

Azokan baserritarraren eta eroslearen arteko harremana zuzena dela ez dute zalantzarik. “Erosleen adinarena eta bizi-moldearena litzateke alde handiena. Azpeitiko kasuan, behintzat, azoka astegunez izaten da eta lanean dihardutenek zailtasunak izan ditzakete bertara jotzeko. Hargatik, egitasmo honek aukera eman diezaieke lanean ari den jende gazte horri, supermerkatuaz gaindiko barazkiak eskura izateko”.

Kontsumo Taldeen dinamika behin martxan jarrita, hainbat helburu dituzte; “izugarritzko arrakasta izatea” eta beraiek eskari guztiei erantzuteko “ahalmenik ez izatea”.



Tania Murillo eta Juan Urkizu eta Amaia Irazusta senar-emazteak nekazaritza ekologikotik bizi dira.

Bezeroen soslaia

III Urkizutarren esanetan, produktu ekologikoetara jotzen duen jendea, ez da beti ohitura hori izan duena izaten. “Gaur egun horrenbeste entzuten den minbizikasuek sortzen duten eragina ere bada jendearen txip aldaketaren eragile”.

Erosleen profilari dagokionean, oro har gazteak direla diote eta, orain, bertakoak baino gehiago, Euskal Herrian bizi diren hego-amerikarrak.

Bestalde, ekologismoari dagokionez, “azkoitiarrak azpeitiarrak baino kontzientziatuago” daudela adierazi dute: “negutegietara etortzen diren inguruko kopuruari erreparatuz gero, hori argi ikusten da”.

“Modu horretan, gainerako nekazariak behartuta egongo lirarteke, nolabait, mundu ekologikoan sartzeko kontzientziatuz”.

Irazustak kontatu duenez, santotomasetako ferian, kontsumo talde baten sorrerari bul-

tzada eman asmoz, postu bat jarritz egin zen halako saiakera bat, baina ez zuen fruitu handirik eman. Irazustaren arabera, egun horietan “gainerakoan ere nahikoa postu izaten da eta galdetzeraz edota kontsumitzera baino gehiago, ikusmirara hurbiltzen da jendea”. Hargatik, martxoaren 12an Sindikatu Zaharrean topagunea izango da guzti honen inguruan hitz egiteko.

Esperientziak ezagutzeko parada

Hil honen 12ko Topagunean, nekazaritza ekologikoa eta kontsumo taldeen inguruko hitzaldia eskainiko dute, Gipuzkoan martxan dauden beste kontsumo taldeen aurkezpenarekin, hain zuzen ere: Arrasateko Askasibar kontsumo taldea, Usurbiltzen kontsumo taldea eta Beizamako Uztaro kooperatiba izango dira. “Kontsumo talde desberdinen esperientziak ezagutzeko aukera paregabea” izango dela aurreratu du Urkizuk. Azpeitian kontsumo taldea sortzeko proposamenan parte hartuko luketen baserritarrak ere bertan izango dira. ✕



**AZPEITIKO ERAKUSLEIHO
HANDIENA** JARRI PUBLIZITATEA UZTARRIAN

uztarria

hrt AZPEITIKO KONGRESUAK TALDEA

||||| jaione unanue |||||



||| leire goenaga |||||

Ate joka

Leire Goenaga. Aspaldian pasatu al haiz Lapatx ingurutik? Sekulako obrak ari ditun egiten.

Jaione Unanue. Hori dun zabor gehiegikeriari eskaintzen zaion irtenbidea: zabortegiak egokitu, errauste plantak eraiki...

Leire. Eredu kontsumista honek horretara bultzatzen gaitin, kontsumitu eta bota. Mar-txa honetan zaborrak irentsi egingo gaitin!

Jaione. Badun ordua arazoari serio heltze-ko!

Leire. Denok sortzen dinagu eta denok hartu behar ditinagu neurriak.

Jaione. Kontsumoan eragitea zaila dun. Baina, gutxienez kontsumitzen dugunetik ahalik eta zabor gutxien sortzea izan behar din helburua.

Leire. Bestela, errausketa plantak nonahi sortu beharko ditun. Lurak ezin din guk sor-tutako zabor guztia irentsi.

Azpeitian noizko?

Jaione. Usurbilgo herritarrek atez ateko zabor bilketarekin jarraitzea erabaki ditun.

Leire. Izugarria dun, %80a zabortegira bi-daltzetik %80a birziklatzera pasatu ditun.

Jaione. Zaborraren kopurua erabat murriztu ditun.

Leire. Azpeitian badinagu aukera zabor or-ganikoa bereizteko, baina herritarren zati batek din horretarako konpromisoa.

Jaione. Borondatezkoa den bitartean zabo-rra nagusi izango dun. Nik nire inguruko etxe-etan jende gutxi ikusten dinat erabiltzen. Eta egia dun zabor guztia bereiztuz gero ikaraga-rrri murrizten dela zaborra.

Leire. Atez ate biltzen hasiko bagina gure zaborrek izen-abizena izango ditun, gaizki ba-

||| **LEIRE.** “Atez ate biltzen hasiko bagina gure zaborrek izen-abizena izango ditun”

||| **JAIONE.** “Errauste plantak eraikitzea baino konponbide hobe ez al dun?”

natuz gero zuzentzeko eskatuko ditun. Ho-rrela, ahal den guztia birziklatzera iritsi arte.

Jaione. Ez al dun errausketa plantak eraiki-tzea baino konponbide hobe?

Leire. Birziklatzeak ez din inoren osasuna kaltetuko eta ingurumenak eskertuko zigun!

Jaione. Gure etxeetan zaborrak enbarazu egiten zigun, baina etxetik ateratzen dugune-an arazoa ez dun gurea nonbait.

Leire. Zergatik ez ditun herri galdeketa egi-ten?

Jaione. Nik, ordea, galdeketa beste era ba-tera planteatuko ninake. Zer nahi duzu Azpei-tirako. Atez ateko zabor bilketa. Errauskailua etorbidean. Edo beste Lapatx bat Izarraitzen. Ea jendeak zer erantzuten duen.✕



Trikiti eta pandero doinuak

Azpeitia eta bailarako trikitilariak omenduko dituzte hilaren 14an egingo den Sanjosetako Trikiti Jaialdian. Aurretik, Antonio Aranaga 'Auntxa' soinu-jolea omenduko dute, Urrestillan.  Ainitze Agirrezabala

Sanjosetako trikiti jaialdian Azpeitia eta bailarako oraingo eta garai batean izandako trikitilariak omenduko dituzte. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak idazkari Maider Jauregiren esanetan, "Azpeitiaren trikitilari asko izan dira eta pertsona bakarra omendu beharrean, bilketa lana egin eta guztiak gogoratuko ditugu". Martxoaren 14an egingo dute jaialdia, Izarraitz pilotalekuan (17:30).

Aurkezle Laxaro Azkune ariko da, aurreko hiru urteetan bezala eta jaialdian zehar, Joxe Mari Iriondok hitza hartu eta "bailarako trikitiaren historia" kontatuko duela aurreratu du Jauregik.

Sei taldek hartuko dute parte jaialdian: Auntxatarrak, Azpeitiko gitarra taldea eta Iban eta Lierni trikitilariak, Otolatarrak; Sahatseta, Egurrola, Berastegi eta Etxe-

III DATUAK

III Zer. Sanjosetako Trikiti Jaialdia. III Eguna. Martxoak 14 (igandea). III Ordua. 17:30 III Tokia. Izarraitz Pilotalekua.

III Antolatzailea. Azpeitiko Udala eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartea.

berritxo; Barrenola lehengusuak eta Antxieta Musika Eskolako eta Ikasberriko trikiti ikasleak.

Antonio Aranagai Auntxa soinu-jolea jaio zela mendea beteko da aurtan. Urteurrena gogoratuz, omenaldia egingo diote Urrestillan. Haren oroimenez, plaka bat jarriko dute bere jaiotetxean, 12:30ean. Gero, trikitilariak kale-jira egingo dute. 2001eko abenduaren 13an hil zen Auntxa.★

III SANJOSETAKO TRIKITI JAIALDIA

12

euro. Kostako da jaialdirako sarrera. Hilaren 8an jarriko dituzte salgai eta egunean bertan ere erosi ahalko dira leihatilan.

100

urte. Antonio Aranaga Auntxa jaio zeneko 100. urteurrena gogoratuz omenalditxo egingo diote Urrestillan.★

III BESTERIK

1 Hezkuntza eta kirolaz bi hitzaldi

Lehenengo hitzaldia, 'Euskal Herriko historia hezkuntzan' izango da eta Angel Rekalde eta Beni Agirre ariko dira hizketan. Bigarren hitzaldia 'Eskola kirola hezkuntzaren kontra' da. Endika Zinkunegi eta Eñaut Telleriak hartuko dute parte.

III Eguna. Martxoak 10 eta 24 (asteazkena). III Ordua. 21:00 III Tokia. Ikasberri ikastola. III Antolatzailea. Ikasberri.

2 San Jose jaiak Loiola auzoan

IX. San Jose Biatloi Sari Nagusia jokatu dute, hilaren 13an. San Jose Egunean, berriz, zezen txikiekin eta poniekin gozatzeko parada izango da, eguerditik aurrera. Gero, asto lasterketa izango da eta arratsaldean herri kirolak. Hilaren 20an, berriz, auzo afaria egingo dute.

III Eguna. Martxoak 13, 19 eta 20. III Tokia. Loiola auzoa.

3 Bertsolaritzaz mahai-ingurua

'Bertsolaritza Urola bailaran, historian zehar' mahai-ingurua eta Erriarratzen X. urteurreneko bideoa eskainiko dituzte. Hizlariak Urola Bailarako bertsolaritzaren aztertzaile Joxin Iturrioz eta Imanol Lazkano eta Jokin Uranga bertsolariak izango dira.

III Eguna. Martxoak 17 (asteazkena). III Ordua. 19:30 III Tokia. Enparan Dorretxea. III Antolatzailea. Erriarratzen.★



Iaz, Sanjosetako Trikiti Jaialdian Joxe Makazaga Ziolar eta Joxe Oñederra Urki omendu zituzten. III Urola Kostako Hitzaz

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

||| ELKARRIZKETA DIGITALA ||| arantxa ulazia/maritxu zubizarreta

“Laguntzak handientzat egoten dira, gu bezalako baserritar txikientzat ez dago ezer”

||| Astearteko azokaren gainbeherari aurre egiteko, baserritarrak azoka egiten hasi dira ostiral arratsaldero. Han izaten dira Arantxa Ulazia eta Maritxu Zubizarreta.

Jende asko ibiltzen al da ostiraletako azokan?

Gu gustura gaude, baina gehiago ibiliko balitz ere hartuko genuke. Azkenengoan ez dakigu, baina plaza barruan egiten gennuenetik kanpoan egiten hasi ginenara, 150 bat lagun gehiago inguratzen dira.

Krisiak eragin al dizue baserritarrei?

Gu aspalditik gaude krisian! Horrexegatik hasi ginen ostiraletan ere azoka egiten, beste aukera bat emateko eta astearteetan azokan ibiltzen ez den jendea ekartzeko asmoarekin, asteartetakoa oso motza geratu delako. Gero eta adineko gutxiago dago, gazteak lanean izaten dira eta ez daukate astearte goizetan azoka-

ra joateko modurik. Ostiral arratsaldean, berriz, libre-edo izaten dutenez, aukera dute joateko.

Zein dira baserritarraren bizimoduaren alde baikorrak eta zein ezkorrak?

Lana geure erara egiten dugu, ez gaude inoren menpe; hori da alde baikorra. Gustuko duguna egiten dugu. Ezkorra, berriz, bala asko egin behar izaten dugula, etekin gutxi ateratzeko.



Nola ikusten duzue baserriaren etorkizuna? Baserri-tik bizimodua atera nahi duzuenoi laguntzeko benetan neurri eraginkorrak hartzen direla uste al duzue?

Baztertuta sentitzen gara guztiz; diskriminatuta, gauzak diren bezala. Etorkizuna, egia esanda, beltz-beltza ikusten dugu. Baserrian aritzen diren gazteek ez dute etorkizunik; soldata oso motz gertatzen zaie. Orduan, zaila da jarduerari jarraipena ematea. Oso zalea izan behar duzu horretarako. Baserri arrunt batean, norberak ekoiztutakoa norberak salduz, oso zaila da aurrera egitea. Baserriko produkzioa industrializatzen ez baduzu, behintzat. Eta horretarako lursail handiak behar dira, eta hemengo baserriek ez dute normalean horretarako aukerarik ematen. Laguntzak handientzat egoten dira, gu bezalako baserri-tar txikientzat ez dago ezer. ✕

||| EFEMERIDEAK |||||

1516

Jasotako ezkurra banatu ahal izateko. Herrian zeuden txerrien zerrenda osatu zuten. 865 txerri kontatu zituzten.

1634

Gurdiak pasatzea debekatu. Parrokien bidez, hileko lehen igandeetan edo jaiegunetan, herriko lurretan ziren zubietan gurdiak pasatzea debekatuta zela adierazi zuten, izugarritzko kalteak egiten baitzituzten.

1766

Mistela eta pattarra. Alkoholdun edari horiek saltzea debekatu zuten, osasunarentzat kaltegarriak zirelako eta sendien hondamena ekartzen zutelako.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.
Herria historian zehar liburua.
 ||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.
 ||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✕

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



HITZ GEZIDUNAK



Kiriol mota	▼	Gesalazko herixka	▼	Musika nota	▼	Italiako hiria	▼	Arabako harana
	Ilargia, esaterako		Harrapa ezak!		Aihena		Egokari mota	
►		▼		▼		▼		▼
Ospea	►				Gaixo	►		
Adar					Zirrara bizia			
*	▼	Nor, oluralean	►	▼				
Erabiltzeko era		Arraunean egiteko			Saldukeria egilea	►		
►		▼		▼	Teilatuko ohola			
							Gramoa	►
							Kontso- nantea	
Euskadiko lurraldea	►				Sorgina	►	▼	
Astindu, jipoitu					Zuhaitz mota			
►				▼		Kontso- nantea	►	
					Marinelen zerrenda		Bokala	►
							Galdetzaile bat	Bizkaiko ibaia
Jainko egiptoarra	►		Lapurdiko mendia	►		▼	Oxigenoa	►
Laster, arin			Kontso. bustia				Ez eme	▼
►		▼		►	Erregeen ikurrak		▼	
					Bokala			
Hegazti mota	►			▼				

* Azpeitiko saskibaloi taldea



Egilea:
Luma

HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUBI. 1. Alegiazko edo gezurrezko arrazoiak, desenkusak. 2. Niobioaren ikur kimikoa. Abar moztua. 3. Nafarroako herria. Talioaren ikur kimikoa. 4. Samar. Barazki hostotsua. 5. Errusiako eta Kazakhstango mendialdea. Salbu. 6. Irlandako itsasoko uhartea. Fruitu mota. 7. Ukatzeko. Euskal Herriko mendialdea. 8. Aiarako. Titanioaren ikur kimikoa. 9. Laztandua, ferekatua.

GOITIK BEHERA. 1. Ahuntzaren umeak. 2. Lasaitua, baretua. 3. Tonaren laburtzapena. Oparitu. Ez eme. 4. Ez estu, nasai. Areago. 5. Abar. Nafarroako udalerria. 6. Garai batean, Herriaren alternatiba bide zen. Modura. 7. Ipar Euskal Herriko talde armatu ohi baten siglak. Larru. Kontsonantea. 8. Ipar Euskal Herrian, aurreratu. 9. Berritsua.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2			■						
3							■		
4						■			
5					■				
6			■						
7			■						
8							■		
9									

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

J	A	R	A	L	I	O	I	D	I	N	I	J
K	A	O	R	O	K	J	O	D	U	G	A	V
O	J	N	U	R	R	A	J	L	A	R	A	J
J	A	J	T	J	U	A	T	R	A	R	Z	U
A	I	A	Z	A	J	A	B	A	R	A	V	J
R	G	R	A	J	R	A	B	I	L	E	R	A
A	U	A	L	A	B	J	K	A	J	I	J	A
I	R	I	A	J	E	N	O	S	J	A	T	E
A	E	A	T	E	L	I	T	E	A	S	A	T
J	P	J	S	J	G	J	S	J	S	J	A	T



HITZ GURUTZATUAK

K	A	R	E	S	A	T	U	V	A
A	I	A	R	A	R	T	I	T	A
E	Z	A	R	A	L	A	R	I	A
M	A	N	A	R	A	N	A	A	A
U	R	A	L	E	Z	I	K	A	A
X	A	M	A	R	A	Z	A	V	A
T	I	E	B	A	S	T	L	A	A
N	B	A	D	A	K	I	A	A	A
A	I	T	Z	A	K	I	A	A	A

ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Martxoak 22 (astelehena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?

BI ERTZETAKO GURUTZEAK SOBERAN DAUDE

IRABAZLEA



Anjel M. Etxeberria Auntxe Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 114. irabazlea. Larchago upategiko ardoak irabazi ditu sari gisa. Argazkian, Etxeberria, saria jaso ondoren.

ETXEZ ETXEKO
ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago



Larchago kriantza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Asuna

Nik ez dakit ilargiak landare honen garapenean eraginik duen, baina urtero indar handiagoz hazten da edozein bazterretan, hezetasunik bada.

Sendakuntzaren ikuspegitik osagai interesgarriak ditu: idorreriaren aurka erabilgarria da eta hesteetako bidea erregulatzen du. Neurologian, mota guztietako sententzioak transmititzen ditu nerbioen bitartez. Erreakzio alergikoak edo izerdi ugari sortu dezake. Diabetikoen tratamendurako ere gomentatzen da, nahiz eta dosifikatzea nahiko zaila den. Diuretikoa da eta eraginkorra izan daiteke likidoen pilaketa arintzeko.

Garairen batean, erreuma zegoen artikulazioetan eta handitutako hemorroideetan igurtzitzeko erabiltzen zen asuna. Baina, ohitura basati horrekin lortzen den gauza bakarra mina ahaztea da; gorputz alde horretan azkura sententzioa zabaltzen baitu.

Landare honen edozein zatirekin egindako infusioak tentsioa jaisteko balio du, baina kantitate gutxi hartuaz hasi behar da.

Elikagai bezala, letxugak baino kaloria gutxiago du, baina C bitamina asko du eta baliagarria izan daiteke gripea edo bronkioetako katarroaren aurka. Aldez aurretik egosita, sukaldaritzarako ere erabiltzen du zenbaitek, entsalada bezala prestatuz.*



|||||||julian bereziartua|||||||

ENDIKA ARREGI iturgina



1. Ohiko konponketa?

Jarioak eta ataskoak.

2. Topo egin duzun gauzarik zelebreena?

Konpontzera joan eta kristoren konpresa pila.

3. Aberiarik eduki ez eta deitzen al dute ligatzeko asmotan?

Ez, baina 'hau bai mutila, sasoikoa!', tarteka esaten didate etxekoandreek.

4. Beti daramazuen erreminta bat?

Metxeroa eta metroa.

5. Hamaiketakorik ematen dute etxeetan?

Galdu den usadioa da.

6. Lanik gehiena noiz?

San Inazio aurretik komuna konpontzeko deitzen dute, familiarrak datozela-eta.

7. Fama handia duzue jendea zain edukitzen.

'Kosta zaizue etortzen', esaten digute batzutan.*

📞 Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jone de Arrese, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Ekain

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia: 943 15 16 40

ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

PEUGEOT

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

uztarria

domusa

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
 - Logotipoa, papertegia...
 - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
 - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
 - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
 - Prentsa bulego lanak
 - Komunikazio kanpainak
 - Mailing-ak...

Bizitza bat bitan

Datozenak datozela, bere orain artekoaren zatilerroak ondo zehaztuta dauzka Azpeitiko alkate denak.

  Mailo Oiarzabal

Z

iklogenesi leherkorren bezperan, Diputaziotik emandako agindu eta gomendioak nola bete adosten dituen bitartean hartu du udaletxeko bere bulegoan Uztartaria Julian Eizmendi (Azpeitia, 1958) Azpeitiko alkateak. Telefono deitik telefono deira, lortu du tarte egitea. Eguraldiak eragindako krisiak eta udal politikaren gorabeherak alde batera utzita, oraingo honetan bestelako kontuetaz hitz egiteko pronto dago, elkarrizketaren uanean betetzear dagoen 52 urteetan bizitakoei errepasoa emateko prest.

Azpeitian jaio zen Julian Eizmendi –“inmigranteen seme nolabait”, bere hitzetan, gurasoak Bidaniakoak ditu eta– eta Azpeitian bizi da. “Garbi” zeukan “sustraiak hemen bota” nahi zituela, baina bere bizitzako lehen hogeita hamar urteetan denbora gehiago pasatu zuen Azpeititik kanpo Azpeitian baino. Eskola garaiko lehen urratsak Milagrosa ikastetxean egin ondoren, 7 urterekik Azpeitira iritsi berriak ziren Betharramdarretara pasatu zen. Baina oinarrizko ikasketak ez zituen herrian bukatu: “10 urterekin, aukera zegoen eta ba-

tzuk joan ginen ordenarekin seminarista. Beraien zentroa Mendelun zegoen, Hondarribian, eta han pasatu nituen, barneko ikasle bezala, 10 urtetik 14ra artekoak”. Seminarista joan bai, eta “ilusio handiarekin, baina derrepente konturatu nintzen hura ez zela nire bokazioa. Etxean ere hitz egin nuen eta, behin hasita, oinarrizko batxilergoa behintzat han bukatuko nuela erabaki genuen, dio.

Batxilergo nagusia egitera etxera itzuli zen, Institutura, hain zuzen ere. 18 urte artekoak hor egin eta berriro Azpeititik kanpo, ia hama-

bost urtez luzatuko ziren unibertsitate ikasketak egitera: Bilbon Ekonomia ikasi ondoren, 22 urterekin Gasteizera joan eta Historian matrikulatu zen; Historia ikasketak ez zituen amaitu, eta 25 urterekin Zuzenbidea ikasteari ekin zion. Lehenengo karreraren ondoren, ikasketak lanarekin uztartzea tokatu zitzaion. “Etxean esan zidaten: ‘Hi, nahi duana egin, baina hemen iturria bukatu zaik’”. Gasteizen eskola publikoetan irakasle aritu zen, “batik bat euskara” ematen, eta ondoren Arabako hiriburuko Udaleko Euskara Zerbitzuan ere bai. Lanarekin lehen harremanak gazteago zenean izan zituen, hala ere. Eizmendik gogoratzten du “udaretan beti” egiten zuela lan: “Aitaren baimenarekin, 15 urterekin atera nuen Gizarte Segurantzako txartela. Lau urtez, aurrena Pogun, gero Oñaz den enpresan, Danonan eta Zubiolan egin nuen lan. Gero krisia etorri zen, 80. go horretan, eta bi urtez Frantzian pasatu nituen udak, mahats bilketan eta fruta bilketan. Klase partikularrak ere ematen nituen”.

Aurrekoa eta ondorengoa

Lana eginez, bai, baina uste baino gehiago luzatu zitzaion ikasketa garaia Julian Eizmendiri. Nahi baino gehiago ere bai, agian. “Etxetik kanpo bizi nintzen, nire lana egiten nuen, neure autosufizientzia nuen, eta ikasten jarraitu nuen. Baina, bueno, 30 urtetik gora, beste etapa hori hastear, edo hori erabakitzear... Benetan, karrera nekatuta bukatu nuen”, dio. “Ez dut gomendatzen, gainera”, berresten du, bizitzako “lehen etapa” bezala definitzen duen hori horrenbeste luzatzea. Eizmendik garbi marrazten du orain arteko bere bizitzaren bialdi edo fase garrantzitsuenen zatilerroa: Zuzenbide ikasketak 32 urterekin burututa, 33rekin ezkondu egin zen, eta hortxe kokatzen du mugarría, orain artekoan beretzat “aurrekoa eta ondorengoa” izan denaren zatilerroa. 30 urtetik aurrera “asentatu beharra” sentitzen hasi zela dio, eta egonkortze hori Gipuzkoako Diputazioan lanean hasi —hori du orain ere lantokia—, ezkondu eta familia berria sortzearekin bat iritsi zitzaion.

Jokoa banatzen

Zaletasunetaz galdetuta, bi nagusitzen dira: futbola eta historia. Azken honi lotzen zaio bere irakurzaletasuna ere: historia liburuak ditu gogoko, nahiz eta azken urteetan irakurtzeko asti handirik ez duen izaten. “Udan beti denbora gehiago izaten dut eta hor aprobeztatzen dut”, dio.

Ez dauzka saltzeko Lagun Onakeko jube-



1. Txikitatik hasi zen Julian Eizmendi danborradan parte hartzen. 7 urterekin atera zen lehen aldiz. Argazkian, soldaduz jantzitako lehen ilaran atzetik hasita bigarreña da. **2.** Futbola izan da Eizmendiren zaletasun handienetako bat. Lagun Onakeko jubeniletan ez ezik, lagunarteko txapelketa askotan hartu zuen parte. Irudian, Zubiolako ‘zelaian’. Goian, eskubitik bigarreña da.

Lokal eske

|||Gazte denborako oroitzapenez galdetuta, garai haiek orain dela gutxi bizitzea tokatu zaion beste pasarte batekin lotu ditu Eizmendik.

“Nik 17-18 urte neuzkala, hemen gazteak lokal bila ibiltzen ginen: Trantsizio garaia izango zen. Orduko alkatearekin —Agustin Prat— ordezkaritza bat joan zen hitz egitera, lokalen kontuaz; 1976a izango zela uste dut, eta izendatu zituzten hiruetakoa bat ni nintzen. Akordatzen naiz, nola egon ginen alkatearekin hitz egiten. Eta gero, neuri tokatu zitzaidan, alkate bezala, gaztetxearen kontuan hitz egitera etorri ziren gazteak hartzea. Orduan, oroitzapen hura etorri zitzaidan; anekdota bat, bizitzan: ‘Jo, orain dela urte batzuk, beste momentu haietan, ni ibili ninduan hitz egiten alkatearekin, lokal premiaz’”.

niletan jokatu zituen lau denboraldiak. Gipuzkoako finala ere jokatu zuten, Atotxan, Reala-ren kontra. Juan Antonio Larrañagarekin eta Jesus Mari Larrañaga Gento-rekin debutatu

zuela gogoan dauka, hiruak Institutuan ‘errekutatuak’. “Zelai erdian, erdi-erdian, jokoa banatzen” aritzen zen. Lagun Onaken ez zuen aurrera jarraitu, baina uda partean-eta Betharramdarretan edo Zubiolan egiten ziren txapelketetan “beti” hartzen zuen parte. “Beti egon izan naiz futbolari lotuta. Futbola inportante izan da nire bizitzan”, dio. Hala ere, aitortzen du futbol kontuan “jokatzea ikustea baino gehiago” gustatu zaiola eta, Lagun Onakeko bazkide den arren, gutxitan joan izan da Garmendipera. Semeen eskolarteko partidetara bai, askotan; eta, irribarrez, “beti bandan eta beti instrukzioak ematen” ibiltzen den horietakoa dela azaltzen du, “baina beti errespetuz; noski, arbitroarekin edo aurkariarekin ez naiz behin ere sartzen, ni neurekin, neure semeekin, nahikoa lan izaten dute eta”.

Pasierik —“Kukuerriko buelta asko gustatzen zait”— eta familiak betetzen diote gaur egun nahi baino mugatuagoa duen aisialdiaren zatirik nagusia. Bidaia bat baino gehiago dituela aitortzen du, baina...: “Emazteak esaten dit, ‘hi beti gero egitekotan’”. Horretan utzi beharko, momentuz.✱

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (MARTXOA)

EGUNEZ

1-6-7-10-18	2-15-22-23-24-25-26-27-28	3-11-19-20-21-30
Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 08 02 58	943 81 13 50	943 81 19 49

GAUEZ

8-9-10-11-12-13-14-29-30-31	22-23-24-25-26-27-28	1-6-7
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 81 12 74	943 81 13 50	943 85 29 89

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 31n izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

	943 08 06 88
--	--------------

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



INFORMAZIO PANELAK.

Azpeitiko auzo desberdinetan jarrita dauden informazio panelak baliagarriak dira, baserri bakoitza non dagoen kokatuta jakiteko. Auzo bakoitzeko ondare aipagarrienak ere agertzen dira.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

8-9-10-11-12-13-14-29-30-31	22-23-24-25-26-27-28	1-6-7	2-3-15-20-21	4-16-17-19	5-18
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 81 12 74	943 81 13 50	943 85 29 89	943 85 12 35	943 85 19 66	943 85 06 60

JUAJOSE BERNAL 'TXITIN'

ONCE-ko kupoi saltzailea

“4 eta 7 bukaerak dituzten zenbakiak ditut gustukoenak”

Bi metroko altueratik erori, kolpe latza hartu eta erdi itsu geratu zen. Kupoiak saltzea du orain lanbide. 📝 Ainitze Agirrezabala

Nola hasi zinen ONCE-ko kupoiak saltzen?

Hogeï urtean Kanarietan bizi izan nintzen eta han anaia eta biok elektrizista lanean aritzen ginen. Langile autonomoak ginen. 1999an, bi metroko altueratik erori, buruan sekulako kolpea hartu eta erdi itsu geratu nintzen. Ikusmena %50era gutxituta dut. Norbaitek lagunduta ibili behar izaten nuen beti. Luza-roan aztertu zuten nire egoera, baina azkenean, Loiolako medikuak ezintasun absolutua eman zidan. Egin dezakedan lan bakarra Once-ko kupoiak saltzea da.

Zenbat denbora daramazu lan honetan?

Azpeitian kupoiak saltzen hiru urte daramatzat, baina aurretik, Azkoititik Oriora arteko herrietan ordezkapenak egiten aritu nintzen, urte betez.

Non saltzen dituzu kupoiak?

Euskal Herria auzoan dudan postuan dena prestatuta uzten dut 08:00etarako eta Garoa tabernara joaten naiz gosaltzera. Han hasten dut eguneko erronda. Sanjuandegiko bederatzi taberna pasatzen ditut eta,

gero, 13:00ak arte postuan egoten naiz. Bazkaldu eta 16:00etan berriro egiten dut erronda tabernaz-taberna. Arratsalde, 19:30etatik 20:00etara egoten naiz postuan eta, gero, Neguda tabernara joaten naiz.

Ba al dago zenbaki politik?

Bai. 4 eta 7 bukaerak dituzten zenbakiak dira gehien gustatzen zaizkidanak.

Gustuko al duzu lan hau?

Oso gustukoa. Festa egunetan gaixo jartzen naiz. Zerbaitetan aritu behar dut beti, aktiboa naiz-eta oso. Larunbatetan jai edukitzen dudanez ez aspertzeko Zestoara joaten naiz, hango betiko bezeroei kupoiak saltzera.

Antzeman al duzue krisiaren eragina?

Nabarmetzen da krisia dagoela, baina asko jokatzeko jarraitzen du jendeak. Gainera, hutsik egiten ez duten betiko bezero asko ditut.

Sari asko banatu al duzu?

Urtarrilean, esaterako, Garoa tabernan 2.000 euro utzi nituen. Bezero batek ostiralero bere anairentzat lau kupoi eta beretzat beste hiru hartzen ditu eta otsailean, aste batean, 420 euro eraman zituen.*



1

1. Bernal Euskal Herria auzoan duen ONCE-ko bere postuan. 2. Goizero, Garoa tabernan gosaltzen du atun-tortilla, ardo beltzarekin. 3. Garoa-ko etxekoandeari kupoiak ematen.



3

Joxe Anjelen Diogenes

Zakukada hildako daramat bizkarrean.

Oraindik orain enterratu dugu Lantziegon Felix, Lurdes zenaren alarguna... Hagineko mina izan zitekeena. Gaitza izan berez, eta sei hilabeteen kito gure laguna. Abuztuan sa-soiko zegoena lurpean datza orain. Gogora datorkit andrearen heriotzan eman zidan esplikazioa: "Norbere lekua eta garaia ditu mundu honetan"...

Zakukada hildako daramat bizkarrean.

Aspaldi hasi nintzen zakua betetzen... Umetan hasi nintzen hildakoak metatzen, etxean bertan. Umeegi, konturatzeko. Koz-kortuta nengoen txikitako laguna hamalau bat urte zituela hil zitzaidanean. Kale berekoak izanak ginen biok. Esaterako, plaza izkina-koak ziren haiek. Erdi kale barruragokoak gu. Enparan kaleko mojetan ikasten genuen, ko-adrila. Nik ez dakit zertan ginen gu biok lagunago, alegia, beste inorekin ginena baino handiago. Ez daukat aztarrenik. Dena dela, han agertu izan da gure etxean, mojek Urrakira eraman gintuzten ibilaldiko erretratua. Han gara biok, Joxe Anjel eta Miel Anjel, zazpi-zortzi bat urteko mukizuak, bata besteari bizkarretik helduta... Oroitzapen lausoan daukat Betharramdarren ikastetxea estreinatu genuela. Hango pilotaleku txikian ibiltzen gine-la, geuk josten genituela pilotak. Kanikak. Txapak. Kromoak... Gero, gaixorik eman nuen urtea ospitalean, Donostian. Gabonetan, nonbait, eskutitz mordoak eskolatik, gelakide-ek bidalitakoak. Erdaraz zen gure eskola, erdaraz etorri ziren eskutitz haiek ere...

Atzera eskolara etorri eta Joxe Anjelen irakurraldia barruan sartuta daukat. Egun batean, ozen irakurtzen ari eta hari egokitu txanda. *Club Diogenes* zen testua. Eta Diogenes gora eta behera Joxe Anjel. Nahiko ondo irakurtzen zuen, urduritasun puntua zeukan arren, nerbioak. Hala ere, ezin *klub* ahoskatu, *klub* zen Joxe Anjelena. Eta *klub* eta *klub* beti Diogenes. Gaitz erdi, apaizak bere horretan



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Irudipena daukat ez nuela Joxe Angelen gaixotasunaren larria neurtu.

onartu zuen nire lagunaren dikzioa, irakurketaren erritmo eta tonuari emanez inportantzia eta ez mutil kozkorren *klupari*.

Tamaina hartzeko metrorik ez

Handik urte gutxira erbestean nintzen ikasten. Tarteetan jasotzen genituen etxeko berriak. Eta familiaren bitartez, herrikoak. "Zure laguna gaixo dago, oso gaixo. Leuzemia". "Eta zer da hori?". "Odoleko minbizia". Eta minbizia orduan gaur bezain minbizia zen, gu kalkuluak egiteko gauza ez baginen ere...

Irudipena daukat ez nuela Joxe Anjelen gaixotasunaren larria neurtu. Hari tamaina hartzeko metrorik ere ez neukan, uste dut orain. Gero, pare bat urte geroago, nik hamalau urte eta udan kanpoan lanean nintzen garaian—udan lan egin behar zela sartu ziguten buruan, nork eta nola ez dakidala—, ama, notizia txarrarekin. "Joxe Anjel hil da".

Nirekin dut harrezkero. Joxe Anjel, zakukada betetzen hasi zitzaidana.

Nirekin ditut harrezkero haren anaiak. Juan Inazio.

Roman. Haien barruan ikusten dut nire laguna, eta haren *klupa*. Diogenes. Diotenez.✕





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com



eurotex
P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es





Lenovo-G550



- Prozesadorea: Intel Dual-Core T4300/ 2.1 Ghz
- RAM Memoria 3 GB DDR3
- Disko gogorra: HD 320 GB SATA 300
- Pantaila: 15"6" HD LED
- Graphics Intel GMA 4500
- Sistema Eragilea: Windows 7 Home Premium 32
- Zenbakidun teklatura
- WebCam kamara
- Bateria: 6 zelda

459 euro
b.e.z. barne



innovadental



innovadental

Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:
943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hortz-klinika
AZPEITIA_n